

## Luis Sansinenea-rekin hizketan

TXILLARDEG

Itxuraz gordin, bi semeren aita izana, urte askotan barrena hortz-protetikoa izana, gaitz gertatzen da Luis Sansinenea gudari gerrate-denboran ibilia denik sinestea.

S: Egia da, halere, eta zoritxarrez. Aurten betetzen ditut 70 urteak. Donostia-ko San Martin auzoan jaio nintzen 1909-an; Al-dapeta-ko «Toki Alai» etxean. Ez dakit ezagutzen duzun...

PH: Bai, bai: jakina. Maldaren haseran, eta Epai-Etxearen atzekaldean dagoen etxea da hori.

S: Horixe! Nahiz orduko San Martin auzua eta gaurko hori batere antzekoak ez izan!

Sansinenea-ren ondoan, ANV-ko olatu berriaren izenean, Migel Martin Egurtza donostiarrak irribarrez segitzen du elkar-riketa.

S: Ene anaia ere komandantea izan zen 1936-ko gerratean, eta ahots ona zuen. Ni baino ezagunagoa zen Sansinenea baritonoa.

PH: Azkeneko hilabeteotan, halere, behin eta berriz agertzen dira zure esanak eta oroitzapenak.

S: Piska bat, bai. Hor daude, esate baterako, Eugenio Ibarzabal-i egin nizkion deklarazioak. Besterik zer esango dizut bada? Dena esana dago.

PH: Noiztanik hasi zinen abertzaletasunaz arduratzen?

S: Egia esan, ni soldauzkara joan arte

(eta 1930-1931-an joan nintzen) ezer handirik ez nuen egin. Gaztea nintzen, giroa ez zen guretzat oso egokia. Eta, hitz batez, Errepublikaren etorrera izan zen nerretzat oso inportantea. Gure belauneko Meabe-ren eragina generaman geurekin: elizari buruz halako uzkurtsun berezi hura, ezkeraren aldeko joera ere bai... Eta, besterik, Pío Baroja irakurtzen genuen gutxiago ala gehiago. Horra hor orduara arteko gure pentsamendu-gura-soak.

PH: Eta, hortaz, ANV-ra zuzenean.

S: Bai, horixe da egia. Gure artean askotan esaten genuen ondoko esaldi hau: «Euskadi askatuta, baina Erromatik askatuta».

PH: Antiklerikalismoa nagusi;

S: Horrelako zerbait, bai. Eta 1932-an ANV-an sartu nintzen.

PH: Eta, zer egiten zenuen?

S: 31 de Agosto kalean batzoki bat genuen: «Eusko Indarra» izenekoa, hain zuzen. Eta hara biltzen ginen. Batzoki hartako eragilea bizirik duzu oraindik, gerraz geroztik aldendua: Antton Otaño. Baionan bizi da, eta larogei bat urte ditu orain. Nerekin batera sartu ziren San Martin auzoko beste bi, zuretzako ezagu-



Gerra-denborako «Tierra Vasca»-k berria eman du (1937-ko Martxoan): Sansinenea Kapitaina, zaurituta.



Heriotza-pena izana denok, baina oraindik ere ongi bizirik (Gernika, 1978)

Zutik: Leaniz, Zabala, Abad, Ardantza

Exerita: Loinaz, Andonegi, Kotera, Sansinenea eta Zubiaga.

nak: Herreros eta Mariano Enparantza zuren osaba bera. Harrigarri gertatzen bazaizu ere...

PH: Ez nekien ezer horrelakorik, benetan! S: Han ibiltzen ziren ere Isasa anaia, Jose Gabarain, Tomas Mitxelena zena, eta gaur ezagunago diren Emeterio Arrese olerkaria eta Asensio Martiarena margolaria.

PH: Eta «Eusko Indarra» batzoki hartan, zer egiten zenuen? Abertzaletasunaren garabeherak ikasten zenituzten edo?

S: Bai. Kantaldiak izanten ziren batzutan, eta hitzaldiak. Eta, batez ere, huraxe zure gure joerako abertzaleok biltzeko lekua.

PH: Eta, halako batez...

S: Halako batez, istilua zegoela-ta, zurrumurrurik eroenak zabaltzen hasi ziren. Larumbata zen: egun desegokia kezka eta mehatxuak seriotan hartzeko. Baina biharamunean, igandean, eta Uztailaren 19-an, ukatu ezina zen egoera: Ejerzitua jaikia zen Errepublikaren aurka.

PH: Eta, zer egin zenuen?

S: Asteartean, 21-an neure izena eman nuen; eta iskulu eta munizio bila Eibar-



joan nintzen. Biharamunean, egusentian, Donostiara iristean, gure trenatiroz zuten goardiek. Bi hilak eta hiru zaurituak erori ziren bertantxe. Amara-ko estazioan gelditu ginen egun batzutan; eta gero Eusko Indarra batzorkira presentatu nintzen, eta kabo izendatu ninduten.

PH: *Eta segituan frentera?*

Horixe. ANV-ko beste ehun batekin, Orio gaineko Zarate-aldean gertatu nintzen. Gudua hasia zen guretzat!

PH: *Eta luzaz horrela?*

S: Euskadiko gerratera bukatu arte. 1937-ko Abuztuaren, horrela, Santoñan gertatu nintzen. Han zeuden, besteak beste, Joseba Elozegi, Koldo Mitxelena eta Juan Axuriagerra. Ordurako kapitaina nintzen.


PH: *Zenbat zineten ANV-koak?*

S: ANV-ak lau bataloi eratu zituen. Lehenengoa Gabriel Goitiak agintzen zuen; bigarrena, Tomas Mitxelenak; hirugarrena, Zapirain-ek; eta laugarrena, zapadorea, Isidoro Olaizolak. Ni lehenengoan egon nintzen gerrate guztian, eta Santoñan eskuetan erori arte.

PH: *Saseta ezagutu zenuen?*

S: Bai. Eta Saseta gizon maitagarria zen. Beste alde batetik, eta nahiz PNV-koa izan, oso begi onez ikusten gintuen gu eta ANV. Asturias-ko frentean gure batallioiak 34,4 galdu zuenea, Sasetak oso ondo jakatu zuen. Saseta bertan hil zen; eta ni neu ere, zaurituta gelditu nintzen. Gero, dena dela, bizkortuta berehala, frentera berriro; eta... Santoña-raino... Santoña-tik Laredo-ra eraman gintuzten.

1937-ko Abuztua zen. Eta Laredo-ko futbol-zelaitik, Dueso-ra. han 25 jukatu gintuzten, eta fiskalak 19 heriotza-pena eskatu zituen. Ni neu, beste hamaikarekin, heriotza-penarekin gelditu nintzen horretara; eta noiz afusilatuko ninduten zai. Lehenengoa, Perez Agua batailloiko Egidazu izan zen, komunista; gero Losada; gero... denak piskanaka. Egunero esnatzen gintuzten, eta hiltzera eramaten. Baina ez zuen negarrik egiten, ezta ezelako espanturik ere. Bagenekien, eta irentzia genuen patu tristea. Zeldetan halere oso gaizki ginen: lagun bakar batetzazko zeldetan, zazpi lagun! Hori dela-ta, ohean ginenean, teknika berezi bat asmatu genuen bestaldera jiratzeko: kartetan bezala, denok batera aldatzen ginen eskubitara, edo ezkerretara. Konprenitzen



**Aberrri-Egina Burgos-ko presondegiaren barruan (1942). Zuzendaria: Orbeago, tolosarra.**

nauzu? Barajetan egin ohi den bezala...

PH: *Bai, bai. Somatu uste dut nola.*

S: Negarrik inork egiten ez zuela esan ditut. Eta egia da, Baina ez egia osoa. Ze, ha lako batez, gu deitzera etorri zen zaindaria, eta guretako lau eraman zituen. Besteok, noski, larrialdiaren ondoren, lasai gelditu ginen. Handik piska batera, berriro zaindaria etorri, eta berriro beste lau izen: eraman, eta agur. Handik piska batera, berriz zaindaria deika, eta berriz lau izen... Eta gure arteko batek burua galdurik, oihuka esa zion: si van a fusilarnos, ¡llévenos ya a todos! Eta orduan, harrigarria, zaindaria hasi zen negarrez!

PH: *Gogorra izan zen!*

S: Abeduaren 14-tik 18-ra 129 afusilatu zituzten larrinagan; gu han seirehun bat ginelarik. Pentsa! Eta gauza bera gertatzen zeb larrinagan eta beste gartzelatan.

PH: *Zenbat denboraz horrela?*

S: Hamasei hilabetez. 1937-ko Irailean kondenatua, 1939-ko Urtarrilera arte ez nuen pena-trukerik lortu. Eta gero gartzelan segitu nuen, jakina, 1943-ko Martxoaren 5-ra arte. Sei urte ia-ia; eta hauetako bat eta erdi, esan dizudanez, heriotza-pena gainean neukala.

PH: *Eta irtetean?*

S: Burrukari ekin berriro. Garai hartan oso garrantzi handia izan zuen Noel Baker sozialistaren ikusaldiak. ANV-ak parte handi bat hartu zuen lorkarrien arazioan. Eta ni neu ere tartean ibili nintzen; Axuriagerra, isilpean, denen koordinatzaile, Donostian zegoelarik. Gero, dena dela, gainbehera hasi zen Erresistentzia; eta ni neu ere bazterturik gelditu nintzen gero eta areago. 1946-an, bestalde, ezkondu egin nintzen.

PH: *Ederki egiten duzu euskaraz. Betidanik dakizu?*

S: Ez, ez. Lehendabiziko gauza, ez dut horren ondo egiten. Eta bigarrena, erdizka bederen euskaldun berria naizela. Jakina, donostiara izanik, eta urte horietakoa, zerbait banekien nik txikitandik. Baina nik seriotan euskaraz ikasi, gartzelan egin nuen. Burgos-en nengoenean, Ander Arzelus nuen gartzalakide; eta harekin ikasu nuen.

PH: *Eta «Eusko Indarra» batzorkian ez zenuten ikasteko biderik?*

S: Egia esango dizut: ez. Teorian bai, jakina; baina ikasi, nik gartzelan ikasi nuen. Eta gero ere bai. Baina gure batzorkian telefonoa bazegoen; eta oraindik ere ongi oroitzen naiz: telefonoaren azpian paper jandi bat bazegoen, eta lontsigna hau idatzirik: nor da esan mesedez...

PH: *Oso polita eta oso argigarria da xehetasun hori.*

S: Nik euskaraz gero ikasi dut; eta oraindik ere etengabe ari naiz ikasten. Zure Elsa Scheelen orain de la hamar bat urte lehenengo aldiz irakurri nuenean, zaila iruditu zitzaidan; baina orain ez zait zaila iruditzen. Gainera nere bi semeek eta nere iloba guzti-guztiekin euskaraz ederki dakite. Zer nahi duzu pozgarriagorik?

PH: *Eta Ipar-Euskadiz, zer?*

S: Honetaz ere, egia aitortuko dizut. ANV-aren programan, eta halakoetan, zazpiak bat genuen gogoan; baina praktikan gaur dagoen kontzientzia ez zegoen.

PH: *Eta, gaurko egoeraz, zer?*

S: Ni ez naiz gizon politikoa. ez naiz inoiz izan. Eta are gutxiago sigla-gizona. Gure arazoa Euskadi da. (Eta Euskadi hitza azkarki azpimarratu du Sansine-neak)

S: *Nik botoa Herri-Batasuna-ri eman diot. Nere ustez, helburua hau litzake: PNV-a egotea batetik; eta ezker abertzale guztia, batuta, bestetik. Gugandik berezi diren ANV-koak ere, ezker abertzale batu horretan ikusi nahi nituzke.*

PH: *Eta zer diozu ETA-z?*

S: *PNV-ko jendea, oso jende ona da. Dударik ez. Baina Madrillen caballero cristiano horietaz barre egiten dute. Tristea da, baina hala da. Eta hala izan da beti. ETA-ren hizkera, ordea, denek ulertzen dute; eta Madrille-koek ere bai, eta guztiiz ondo.*

PH: *Hortaz?*

S: *Azkeneko egia: neure burua oso arrotz somatzen dudala Herri Batasunean. Beti tokatu izan baitaiz galtzaileen artean egoitea!*



**«Eusko Ekintza»-ko gudari eta ofiziale batzuk Burgos-ko presondegian (1942). Exerita, bigarrena eskuin-aldetik, Sansinenea Kapitaina.**